

HAURTZARO IKASTOLAKO MENDI TALDEA

Ekainak 14

Bidarrain rafting-a

Eguna: ekainak 14, igandea.

Irteera: 8:30ean ikastolako aparkalekutik.

Itzulera: 17:00ak aldera.

Aurreko 2 urteetako gozamina errepikatzeko asmoz, aurten ere Errobi ibaian rafting jaitsiera egiteko irteera antolatu dugu.

Azken 2 urteotan talde txikia animatu garenez autoetan joango gara, beraz, helduen beharra izango dugu. Taldea handia izango balitz autobusa antolatzen saiatuko ginateke eta prezioa ere aldatuko litzateke. Ekintzaren ordainketa han ekintza-gunean egingo da.

Oiartzundik autobusean Bidarra aldera 8:30ean abiatuko gara, hamaiketakoarekin indarrak hartu eta 10:30ean Uhinak kirol ekintzetako gunean elkartuko gara. Bertan arduradunek aurkezpena egin eta jaitsiera egingo dutenen artean materialaren banaketa egingo dute (neoprenoak, txalekoak, kaskoa eta arraunak). Gero, beraien garraioa hartuko dugu jaitsieraren abiapunturaino, taldeka ontzia hartu eta jaitsiera hasiko dugu. Bukatzeko, gunera joango gara berriro eta bertan dutxatzeko aukera izango dugu.

Horren ondoren, erreka bazterrean bakoitzak etxetik eramandako janariarekin bazkalduko dugu eta solasean eta jolasean denbora pixka bat pasa ondoren Oiartzunera bueltatuko gara.

Izen ematea: <https://forms.gle/1JNMbHmFLsxnSwqw9>

Epea: Ekainak 1

	Autobusa	Rafting
Ikasleak 9-12 urte	? €	24 €
Ikasleak 13-16 urte	? €	31 €
Helduak	? €	36 €

OHARRAK:

1. Mendi taldeko irteera guztietan bezala LH3tik gorako ikasleek izango dute parte hartzeko aukera.
2. Rafting jaitsierako uretako oinetakoak eta bainu jantzia behar dira.
3. Dutxatzeko aukera dago.
4. Bakoitzaren hamaiketako eta bazkaria eraman behar dira.
5. Gurasorik gabe doazen ikasleek muga zeharkatzeko baimena Udaltzaingoan eskatu behar dute.
6. Mendi taldea ez da ikasle guztiez arduratuko, zenbait helduk ere joan beharko dugu.
7. Ikastolak ikasleentzat eskolaz kanpoko ekintzetarako erantzukizun zibila du. Helduok aparteko aseguruia nahiko bagenu 5€ balio du.
8. Nahi izanez gero bazkaldu ondorenerako jolas, pilota edo beste zerbait.
9. Azken ezustekoetarako: Lorena 679358740



Haurtzaro Ikastolako Mendi Taldea